

Literaturaz gozatzeko gonbidapena

XABIER ETXANIZ ERLE 2023ko abenduaren 31



Mundua pitzatuta dago baina hantxe gabilta oinez

Testua: Harkaitz Cano

Ilustrazioak: Isabel Herguera

Erein, 2023

Fernando Bernués antzerki zuzendariaren ideia batetik abiatu zen Harkaitz Cano esku artean dugun liburu bitxi eta zoragarri hau idaztera. Neskaxa batek, Oihanak, bere istorioa kontatzen digu: gurasoekin duen bizimodua, amaren heriotza, ondorengo samina, liburutegian lan egiten duen Agatarekin duen harremana, aitarekin berregiten duen bizitza... Asko dira Oihanak kontatzen dizkigun kontuak; koadro batean pintzelkadek edo pintura tantek osatzen duten irudia bezala horrela joango da Cano osatzen Oihanarena.

30 atal laburretan (bizpahiru orrikoak luzeenak) egileak Oihanaren istorioa kontatzen digu, baina, era berean, irakurlearen inguruan sare bat osatzen du, irakurlea, armiarmak euliarekin egiten duen bezala, harrapatuta gera dadin testuan, testuak kontatzen digun istorioan eta, batik bat, istorioa kontatzeko moduan.

Gertaerak iradokitzen (amaren heriotza narratzean bezala) edo modu poetikoan kontaturik, irakurleak testuaren mezua eraiki behar du bere barnean, esaten denetik at irakurri, kontatzen denetik haratago ikusi. “Batuetan istorio bat kontatzen dizute eta barre egiten duzu. Beste batuetan, istorio berbera kontatzen dizute eta negargura besterik ez duzu sentitzen”.

Liburua, gainera, irakurketaren aldeko edo liburuen aldeko aldarria ere bada. “Liburuek ez dizute ezertara derrigortzen, gonbite bat dira”; horretarako, batuetan, literatura unibertsaleko erreferenteak erabilia ere: “Eta postariak: 'Baina, Pablo... Poemak ez dira idazten dituzuenonak, haien premia dugunonak baizik”.

Mundua pitzatuta dago baina hantxe gabilta oinez, horixe omen dio Afrikako esaera zahar batek. Eta munduko gorabehera guztien artean gu gaude aurrera egiten, oinez. Harkaitz Canoren obra honek aurrera egiten laguntzen digu, egoera okerretan ere oinez jarraitzera animatu. Baina horien guztien ginetik Literaturaz (hizki larriz) goatzera, Canoren literaturaz, Afrikako kulturari eginiko erreferentziekin eta obran aipatzen diren hainbat idazleren aipuekin goatzera; baita Isabel Herguerak eginiko irudiekin hunkitzera eta istorio zoragarri batean barneratzera ere. Horietara eta beste mila lekutara eramango gaitu liburu honek. Literaturaz goatzeko gonbidapena.